

# Zer nahi dugun



ANTTON OLARIAGA



**KATIXA DOLHARE -ZALDUNBIDE**  
LITERATUR ZALEA

**2**021eko urtarrilean, Barbara Stiegler filosofoak eskuorri bat argitaratu du Gallimard argitaletxean, *Tracts* sailean: *De la démocratie en pandémie*, edo *Demokraziaz izurrite garaian*. Bordeleko unibertsitatean irakasle da Barbara Stiegler, eta jakintza alor ezberdinetako jendearekin lan egiten du. Eskuorri hori, osasun publikoan, ospitale praktketan, hizkuntzalaritzan, eskubide publikoan, filosofia politikoan, zientzietako filosofian eta historia politikoan adituak diren lankideekin idatzi du.

Liburutto horren tesia da COVID-19a ez dela pandemia, baizik eta “sindemia”, erran nahi baitu ezberdintasun sozialek eta krisi ekologikoak eragin eritasuna. Horrela ikusiz, COVID-19a ez da izugarria berez: izugarria da argiki erakusten digulako zein heinetaraino gaizki doazen gizakia eta gizartea, bai osasun fisikoaren aldetik, bai osasun psikologoaren aldetik, bai sanotasun intelektualaren aldetik.

Alabaina, COVID-19ak agerian uzten du zein hedatuak diren eritasun kronikoak (hipertentsioa, obesitatea, diabetesa, gaitz kardiobaskularrak, hatsari lotutakoak, minbizia); norbanakoak zein ahulduak gauden ere moralki, lan bal-

dintzek errausten gaituztelako; zein heineko prekaritate mental, afektibo eta materialean dauden jendarteko pertsona gehienak.

Gehiago dena, COVID-19 sindemiak denen bistara erakustera eman du gobernatzaileen jakitate eskasa, ausarki moldatzeko eta egokitzeko gaitasun eskasa, asmamen falta, jendarteari begira duten erdeinua, hots, hautatzen duten postura autoritarioak ezin ezkuta ditzakeen makurrak.

Bizkitartean, ez da oldar uhin handirik hautematen bazterretan: COVID-19aren kontrako gerlan sartua da gizartea, agintarien manupean, covid-a pandemia balitz bezala. Berriki, Emmanuel Macron-ek inposatu digu laugarren hetsaldia, galdeginez tele-hezkuntzara jo dezagun gure haurrendako, eta guhaur telelanean ari gaitezen; bestela erranda, munduko sistema ekonomikoa etenik gabe aitzinaraz dezagun, hiztegi eta praktika berrietuekin. COVID-19 sindemia gisa hartuz, alderantziz, ohar gaitzek izurriari kontra egiteko modu iraunkorra sistema ekonomiko eta politikoz aldatzea litzatekeela, hainbat elkarte eta erakunde aldarrikatu bezala.

Baina aldaketa hori, zenbatek nahi-ko luke, zinez? Goxo da arduradunei es-

kaintzea erabakitzeke erantzukizuna, eta manukor gelditzea, klima aldaketa, zuzentasun soziala, oinarritzko eskubideen defentsa eta horrelako xedeen alde egiazki ekin gabe. Begira nolako erronkak dauzkagun: gure antolaketa ekonomiko osoa kanbiatu beharko genuke, hiritartasun baloreak birdefinitu, gure jakitateak dudak ezarri eta ikasketetara berrituz... eta ezin erran horrelako indar kolektiboak salbamena lekarkituzkeela.

Hauxe dateke galdera, beraz: erraztasunez edo etsipenez, erregimen autoritario bat desiratzen ote dugu? Ala demokrazian bizi nahi dugu, egiazko demokrazian, diot, horrek eskatzen duen funtsezko eztabaida giroarekin, eta gizarte maila guzietan? Galdera egokiak egiteko gaitasuna, benetako jakitatea eta norabideak finkatzea elkarreraginean baizik ez daitezke eraiki, dio Barbara Stieglerrek, ez autoritarismo hutsal eta itsuan.

Laugarren etxe zokoratze hau gurutze bide bukaezin bateko urrats berria irudituko zaio frankori, nola ez. Ea, tartean, laguntzen gaituen, bakoitza, guretzat eta gizartearentzat *zer nahi dugun* argiago izaten, ideologia eta praktika autoritario guzietatik at. ●